

Euskal Kulturaren transmisioa

Elkarrizketa

■ Julen Arexolaleiba

IRITZIA

- Jone Miren Hernandez
- Ane Larrinaga
- Mario Zubiaga
- Andoni Eizagirre
- Xabier Aierdi
- Imanol Galfarsoro

Julen Arexolaleiba

MUko HUHEZiko irakaslea

«Hizkuntza politika ez da hautu pertsonal bat»

Euskara eta euskal kultura gaur egun arte nola iritsi zaizkigun jorratzen da LARRUN honetan. Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultatean jorratu dute euskal kulturgintzaren transmisioaren gaia, horretarako propio eraturako graduondoan. Handik pasatutako sei pertsonen iritziak bildu ditugu eta graduondoko koordinatzaile Julen Arexolaleiba elkarrizketatu dugu. Boterea, gizarte zibila, euskalgintza, kontsentsua, gatazka, biziraupena, identitatea, memoria... irakurleak gaiaren joan-etorrian jirabiran ikusiko dituen kontzeptuak dira. Iragana azaltzen dutenak eta etorkizunerako ere giltzarri agertzen direnak.

■ Xabier Letona

Julen Arexolaleiba (Arrasate, 1962) HUHEZiko magisteritza eta psikopedagogian irakasle da. 2007-08 eta 2008-09 ikasturteetan emandako Euskal Kulturgintza graduondoaren koordinatzailea ere bada. Datorren urrian ekingo diote berriz 2010-2011ko graduondoari (www.mondragon.edu/huhezi/ekt). Soziolinguistikaren eremuan mugitzen denak aspaldi ezagutuko du Arexolaleiba, urte luzez ari baita lanean esparru horretan.

Has gaitezen definizio kontuetatik. Zer da euskal kultura?

Guretzat euskal kultura euskaratik eta euskaraz sortzen dena da. Gero gaiarekiko hurbilpenak hor dira, hau da, euskal kulturaren mesedetan beste hizkuntzetatik egin daitezkeen ekarpen guztiak. Edo hitzezkoak ez diren adierazpenetatik euskal kultura horri

erreferentzia egiten zaionean. Asko luzatu gitezke honekin, baina adierazgarriena da gaur egun gure burua izendatzeko ere zailtasunak ditugula. Orainsu arte euskalduna esanda, bertako jendeak berehala ulertzen zuen horrek zer esan nahi zuen, euskaraz jakin eta egiten duena. "Vasco parlante" erabili behar al dugu? Euskaraz ez al dugu terminorik gure burua izendatzeko? Kulturarekin ere beste horrenbeste gertatzen delakoan nago. Zein izen emango diogu euskaratik eta euskaraz sortzen denari?

Nola ematen da transmisio hori?

Hemen eta edozein lekutan, transmisioa etxean, eskolan, gertuko komunitatean... eman izan da. Oso orainsu arte ahoz egiten zen batez ere transmisio hori eta gaur egun, ahoz ahoko horrez gain birtuala deitzen dugun hori ere badugu, esate batera. Baina

garrantzitsua da ohartzea digital hori formatua dela, aurretik datorren zerbaiti, badagoen izateko gogo bati, bide emateko modua dela.

Transmisioak nola ekarri du euskal kultura gaurdaino? Nola gaude?

Izateko gogo batek ekarri du euskal kultura gaurdaino eta transmisio hori batez ere bide ez instituzionaletatik gauzatu da, hau da, eskolarik gabe, administrazioerik gabe, edo estatu modernoek beren egiturak birsortzeko dituzten tresna horiek guztiak gabe. Eliza litzateke, izatekotan, transmisio horretan parte hartu duen instituzio bakarretakoa. Izateko gogo hori modu inkonziante batean transmiti liteke, elebakartasunaren eraginez; baina transmisio hori gauzatu da historian zehar, era berean, euskaldun izateko gogo batek eragindako pertsona eta talde antolatuen bidez.

XX. mendea aintzat hartuta, egile askok bereizten dituzte bi fase euskal kulturaren: egungo autonomia estatutuaren aurrekoa (botere publikoa aurka) eta ondorengoa (botere publikoa bultzagile, EAEn behintzat). Ikuspegi historikotik horrek zer eragin izan du transmisioan?

Autonomiarekin ematen den instituzionalizazioa inflexio puntu bat da. Graduondoan aztertu da instituzionalizazioaren aurreko garaiaren mitifikazioa. Orduan ere, jende gehienaren motibazioa sinbolikoa eta idilikoa izango zen, benetan euskaltzalea baino. Baina 60ko hamarkadaren amaieran eta 70ekoan Ez Dok Amairu sortzea, AEK, korpusaren inguruan egindako ahaleginak... horiek ez ziren ari motibazio sinboliko-idiliko horregatik. Jakitun ari ziren, izateko gogo euskaltzaleari erantzun nahian.

Eta garai haietan biziraupenari erantzun nahian, ezta?

Bai, hori da gakoa, denboran iraunkortzea. Gure artean badakigu euskara ez dela izan zabalkundearen kultura, iraunkortasunarena baizik. Korpusaren inguruan 60-70eko hamarkadan egindakoak itzelak izan ziren, eta berriz ere gehienetan instituzioen babesik gabe. Mitifikatzen dira garai haiek, baina joandako edozein garai ez da per se gaurkoa baino hobea.



Instituzioekin galdera garrantzitsu bat dator: norena da gidaritza? Ezagunak dira Gernikako Estatutuaren ondoren jeltzaleek eta ezker abertzaleak euskal kulturaren garapenaz izandako ikuspegi desberdinak.

Hor bada galdera polit bat: euskalgintzan ibili izan den jende asko zergatik ibili da hor, ezker abertzalekoa zelako edo euskaltzalea zelako? Baina bai, garai hartan eten gatazkatsua sortu zen. Instituzionalizazioari esker, bide ez instituzionaletatik garatu izan den transmisioa beste leku batzuetara ekarri ahal izan da: eskoletara, unibertsitatera, komunikabideetara, administrazioiko hainbat zerbitzutara eta abar.

Zein da gizarte zibilaren tokia? Zein botere publikoena?

Elkar elikatu beharko lukete, eta hainbat urtetan horretan baino elkarri lekua jaten eta irainka aritu

dira, eta ez hizkuntzaren lehentasunetatik abiatuta, baizik eta norberaren unean uneko sinkronia politikoen lehentasunetatik.

Eta zein gutxieneko adostu behar dira euskal kulturaren garapen indarturako?

Kulturak aseko baditu hizkuntza komunitate baten premiak, betebeharrak... horretan zientziak esan dezake zerbait edo arlo honetan ez dago zientziarik eta aldian aldiko politikak finkatzen du zer den hizkuntza eta kulturapolitika? Hau gako inportantea da ondorengo galderei erantzuteko: Delako eleaniztasunean eta dela-

ko kultur artekotasunean euskara 50 urte barru biziko bada, zer da gizarte zibilaren eta unean uneko botere publikoen artean adostu behar dena? Hamar hiztun dituzten ehunka hizkuntza ere badira, baina bizirik daude edo hiltzeaz? Kulturaren museo ondare ikuspegi batetik, gaelikoa, gaur egun dagoen egoeran, beste ehun urtez ere iraunarazi dezakete Irlandan. Hori opa diogu gure buruari?

Beraz, gauza bat da leku batean botere publikoak zer egin nahi/ahal duen unean uneko, eta beste bat hizkuntzak berak behar duen adostasuna. Eta adostutako gutxieneko gako horiei zer politika dagokie?

Aurreratu al da gutxieneko gako horien identifikazioan?

Hizkuntzen biziraupenerako gutxieneko eredu teoriko hori zehaztuta dago. Norabidean ez okertzeko, Jonek [Sarasua] esaten duena azpimarra liteke: "Nire ustez, elean hiztuna izatea behar bat da. Gero, behar bada, eleaniztuna izatea ere bai". Hizkuntza politika ez da hautu pertsonal bat, hau da, zuk hainbat hizkuntza dakizula eta nahi duzuna erabili ahal duzula. Hizkuntza politika eraginkorra izango da, baldin eta bermatzen badu euskaldun osoak ez zaizkiola euskarari bukatuko. Kopurutan hiztunak handitzen bazaizkio, baina euskaldun osoak gutxitu, euskararen osasuna ez da hobea izango. Hau da, eleaniztasunaren barruan hurrengo belaunaldiek euskara lehen hiz-



kuntza moduan izan dezaten, zer gutxieneko bete behar ditu etxean, eskolan eta gertuko komunitateetan, den-dena beti gera ez dadin norberaren motibazioaren baitan? Hori zehaztea da politika publikoen sakoneko erantzukizuna.

Nola lotzen da hori gidaritzaren gaierekin?

Hizkuntza komunitate baten geroaren bermea ezin da utzi lau urtez behin aldatzen diren politikarien bueltan. Euskaratik bertatik bideratu daiteke beste mugimendu bat instituzioak erantzutera animatuko dituen? Ikustea besterik ez dago gobernuetako hizkuntza edo kultura sailek zer lortzen duten euren etxe barruan, gobernuetako beste sailetan, eta emaitzak oso urriak dira. Orduan, euren eremu hurbiletan emaitza urriak lortzen dituztenean, gizarte zibil osoaren gidaritza egin dezaketela pentsatzea, autoirudi gehiegizkoa ere bada. Norabidearen erantzukizuna gizarte zibilarena da eta botere publikoei dagokie hori sustatzea, forma ematea, kudeatzen ari diren ondare unibertsal hori hondoratu ez dadin.

Euskal Herrian, beraz, Kontseiluak edo horren moduko batek egin beharko luke gidaritza hori?

Etxea gobernatu ezin duenak kanpokoa gobernatu nahi izatearen kritika hori gizartera ere eraman deza-

kegu. Kontseiluak agian lan hori bete nahi du, baina betetzen al du? Eta betetzen ez badu zergatik da? Kontseiluko elkarte bazkideek, adibidez, zer pertzepzio dute gai horrekiko? Bistan da ez duela nahi bestean asmatu. Gizarte mugimenduan ere denok ezagutu ditugu kontrajarri diren ekimenak, adibide gisa herri komunikabideetara begiratu besterik ez dago. Lidergo sinbolikoa agian bai, baina oraindik inork ez du hizkuntza komunitatearen lidergo politikorik irabazi. Egiteke eta egiteko daukagu hori.

Gaztelania, frantsesa, ingelesa, etorri datozen beste kultura txikiago batzuk... eta euskara. Zein da euskarak euskal gizartean behar duen lekua?

Hiritartasunaren edo *ciudadanía*-ren diskurtsoak hala dio: “Zuek %20 zarete eta zuen herriko udaletxean ez badago inor euskaraz dakienik, zuek badakizue erdaraz eta erdaraz eginda arazoa bukatu da”. Hizkuntza eskubideak euskaldunok izango garen populazioaren ehunekoari lotuak badaude jai dugu. Hemen euren burua espainiarizat dutenek, Estatuaren indarrari esker daukate duten estatusa. Ez badute euskara ikasi nahi, Estatuak babestu ditzake euskara ikas ez dezaten eta kenduko dituzte hizkuntza eskakizunak. Estatuak ematen die babes hori. Gero AEBra doaz, eta Estatuak babesa ingelesari ematen dionean, zer esaten diete Cervantes Institutuak eta Academia de la Lengua Españolak Kaliforniako hispanoei? “Zuek nazio linguistikoa zarete eta eskubidea duzue Estatu horren barruan eskola gehiago izateko, komunikabideak... finean, babestuak izateko”.

Euskal Herrian seguruenik euskarak aurrerantzean ere ez du autopistarik izango, eta gaztelaniak eta frantsesak bai. Kontua da ea euskaldunok zer izango dugun pribatutasunaren eremuan geratu ez gaitzen, jakinik erdaraz badakigula eta edonon erdaraz molda gaitzkeela. Autopistarik izango ez bada ere, bidea izan behar dugu zerbitzu publikoetan zein pribatuetan euskaraz naturaltasunez ibiltzeko.

Euskalduntzea ezin dela identitatearen eta legearen gainean eraiki dio orain erakundeetako diskurtsoak, sinpatia eta erakargarritasunetik egin behar dela lan hori, kontsentsutik. Seguruenik bada arrazoi zatirik diskurtso

horretan, baina badirudi hizkuntza eta kulturen arteko gatazka ere ahaztugura dela. Non da oreka?

Zer dela-ta daude kontraesanean identitatea eta legea moduko kontzeptuak, sinpatiarekin eta erakargarritasunarekin? Esate baterako, EAEn, demaseko gatazka omen zegoen norbaitzuen irudiko, ikasle guztiei euskara ikasazten omen zaielako. Ikusi berri dugu 2010-11 ikasturteko matrikulazio-aldian halako gatazkarik ez dagoela. Nafarroan, ordea, euskaraz eskolatu nahi dutenei, zergatik ez zaie aukera hori ematen lurralde osoan? Koinzidentzia bakarra EAEn, Nafarroan eta Euskal Herri osoan: gatazkazaleek ez diote euskarari bide handirik zabaldu nahi!

Etzegaritateko bidesarian Gipuzkoako Diputazioa ez da ari pentsatzen sinpatiko edo erakargarri ote den. Botereak zer bait nahi duenean, sinpatia eta erakargarritasuna ez zaizkio asko inporta, legez egiten du.

Kontsentsua delakoari, bestalde, boterean dagoenak jartzen dizkio mugak. Sarri askotan, helburua lortzeko bitartekoa baino, kontsentsua bera helburu bihurtzen da. Gu hizkuntzaren lehentasunetan oinarritutako diskurtso batean bagaude, nekez onartuko dugu aterabidea hautu pertsonalean dagoenik, delako kontsentsuok aldarrikatu ohi duten eran.

Goazen adibideetara, eremu praktikoe-tara: Hegoaldeko eskola publikoetan euskara, gaztelania eta ingelesaren hizkuntza eredu berria jarri gura da indarrean. Zer ondorio izan dezake horrek euskararengan?

“Kafea guztiontzat” horrek ez du balio. Urrestillako [Azpeitiko auzoa] hiru urteko umeari ingelesa eman ahal zaio eta ez da ezer gertatuko, 16 urterekin hiru hizkuntza horietan gaitasun maila bat izango du. Barakaldon, aldiz, euskararik entzun ez duen hiru urteko umeak bi hizkuntza intentsitate berarekin aldi berean garatu nahi izatea ezinezkoa da. Ez da iritzi bat bakarrik, datuak hor daude. Badakigu A, B eta D ereduak eman dutena. A ereduan inork ez du lortu B2 maila ematea, B ereduan heren batek lortu du eta D ereduan bi herenek. Beraz, bi hizkuntzekin lortu ez dena nola lortuko dute hiru hizkuntzekin? Ingelesaren behar horri euskararen bizkar erantzun nahi zaio.

Non dira minimoak irakaskuntzan, gure haurrek 16 urterekin euskaraz egin dezaten? Gazte horrek

“**U**rrestillako [Azpeitiko auzoa] hiru urteko umeari ingelesa eman ahal zaio eta ez da ezer gertatuko, 16 urterekin hiru hizkuntza horietan gaitasun maila bat izango du. Barakaldon, aldiz, euskararik entzun ez duen 3 urteko umeak bi hizkuntza intentsitate berarekin aldi berean garatu nahi izatea ezinezkoa da”

zenbat ordu hitz egin behar du euskaraz elebitasun orekatu batera iristeko? Eta etxean egin ez baditu non egingo ditu? Eta etxean eta lagun artean egiten ez baditu, eskolan entzunda bakarrik zer lortuko da? Hor dugu 30 urteko esperientzia. Botere publikoaren erantzukizuna honakoa da: hizkuntz eleaniztasunean, zeintzuk dira gure minimoak euskararen etorkizuna bideratzeko? Funtzio edota lurralde hegemonikorik gabe, nola lortu ahal da hori? Galdera horiei erantzutea dagokie erakundeei, beti ere parametro zientifikoak aintzat hartuta, jakina. Agian, gaur egun gabiltzan parametroetan, erantzunetik urruntxo egon gaitezke, baina gakoa hor dago.

Hizkuntzari lotuta sarri aipatzen da: kantitatean euskaldunok irabazi egin dugu, baina kalitatean behera egin da. Zer ondorio du horrek?

Euskarak bizirik jarraituko badu sormen hizkuntza delako izango da. Itzulpenen bitartez nahi beste handitu dezakegu produkzioa, kuantitatiboki ere hiztunetan aurrera egin dezakegu, eta hori ona izango da. Baina galdera zera da: kuantitatibotasun horretan kualitatibotasunean ere handitzen ari gara ala urtzen ari gara?

Eta urtzen ala handitzen ari gara?

Eskolatik datozen hiztun berri gehienak elebidun pasiboan edo erdal elebidunen multzora datoz.

Gakoa non dago? Batetik, ikusi behar da elebakarrak geratzen ez den honetan, euskal elebidunak eta elebidun orekatu samarrak zenbat diren, erlatiboki, elebidunen kopuru horretan. Eta erdal elebidunen multzotik elebidun orekatuaren multzora pasatzearena eskola sasoiaren bakarrik egin daiteke edo bizitzan zehar ere bai? Hona hemen izan daitezkeen bi joera. Bat, sei urterekin erdal elebidun izatetik 18 urterekin elebidun orekatua izatera pasatzea. Baina zer intentsitate behar da horretarako gertuko harreman-sareetan? Eta beste joera bat izan daiteke gero eta erdal elebidun gehiago izatea, gero eta euskaldun pasibo gehiago, ulertzeko gauza direna baina ez hitz egiteko. Ze norabide nagusituko da? Zer nolako erakarmen-indarra jarraituko dugu izaten? Hori guztia ezin da banakako hiztunaren pentzudan utzi.

Iaz Berrria-n egindako elkarrizketa batean hiru plano aipatzen zenituen: hiztuna, komunitatea eta lurraldea. Nola ikusten duzu plano bakoitza?

Hiztunen planoan egin ditugu aurrerapauso handienak. Garenak kontuan izanda sormen maila handia lortu dugu, proportzioan handiagoak diren beste hizkuntza komunitate askotan baino gehiago. Baina zer oihartzun du horrek plano komunitarioan? Elkarte eta hedabide ugari sortu dira, baina gizarte mailan oraindik ez dugu behar besteko oihartzuna izateko ahalmenik lortu. Eta lurraldea? Nola dugu tokian tokiko bizi-indar etnolinguistikoa? Eremu horretan badira gauza kezkarriak. Adibide bat, Iruñerriko Euskalerria irratia. Garai batean behar bada bost euro jarriko genuen bakoitzak bere poltsikotik eta sostengua emango geniokeen, besteak beste. Gizartean hedatu den indibidualismo hori agian gure hizkuntza komunitatean ere zabaldu da eta talde eta elkarte bakoitza agian inoiz baino gehiago berean zentratuta bizi da. Haiti urruti geratzen den moduan, agian Iparraldea ere oso urruti geratzen ari zaigu, berriro ere.

Hiru eremuotan bada, bai!, zer hobetua. Halaxe bizi izan gara, baina, euskaldunok beti: unean unean daukagunetik sortzen eta berriro sortzen. Euskararen hil kanpaiak askotan jo izan dira mendeetan zehar, baina hemen gara gu. Aurrerantzean, ordea, beste nazio linguistikoa askok ere erantzun egin beharko diete guretzat jada endemikoak diren desafioei. ■

Transmisioari, memoriari galdezka



Jone Miren
Hernandez *

"Baina, memoriak zein norabide jarraitu behar duen erabaki behar da. Jose María Sánchez Carrión, Txepetxek, *Un futuro para nuestro pasado* izenburua jarri zion askotan euskalgintzako gailur teorikoa kontsideratu izan den lanari. Nik beti pentsatu izan dut, horretara iritsi baino lehen euskarak eta euskal kulturak oraindik zehaztu behar zutela zein iragan nahi duten etorkizunerako"

Transmisioa ahanzturari kontra egitea litzateke. Hori da, behintzat, Roldan Jimeno Aranguren historialariak *La memoria de los derrotados* (1999) izeneko artikuluan transmisioaren inguruan proposatzen duen definizioa. Irakurri bezain pronto abiapuntu interesgarria iruditu zitzaidan eta, ondoren, ildo horretatik jo izan dut gai horren inguruan egin ditudan azterketa eta hausnarketetan. Euskararen transmisioa eta euskal kulturaren transmisioa izan nuen tesirako aztergaia, baina transmisioak bereziki memoria edo oroimenaren inguruan pentsatzeko parada eman zidan.

Nire ustez, transmisioak memoria du bizitoki, pega-pega eginda elkarbizitzen dira eta ezin dugu bata bestearen laguntzarik gabe ulertu. Eta laster ohartu nintzen transmisioa bezala, memoria ere gaia oso konplexua eta korapilatsua zela; dimen-

tsio ezberdinak biltzen dituela bere baitan. Arakatzan hasi eta galderak bata bestearen atzetik sortzen ziren.

Lehenengoa. Zein materialek osatzen du memoria?

Inguruan begiratuta ohartu nintzen transmisioaz zein oroimenaz hitz egiten zenean askotan datuak aipatzen zirela. Izaera ezberdinetakoak ziren: adibidez, hizkuntz transmisioaz mintzatzeko orduan, gehienetan, portzentaiek hartzen zuten protagonismoa. Belaunaldi batetik bestera zenbatek gordetzen zuten euskara jakitea zen askotan erronka nagusia. Aldiz, kultur transmisioaz hitz egiteko garaian historian erreparatzea zen ohikoa. Letra larriz idatzitako historian. Guzti honetaz ohartzeak kezka piztuarazi zidan. Nola ulertu transmisioa –zehazki hizkuntz transmisioa– Euskal Herriko hainbat gunetan, azken

"Mina eta poza memoriaren parte dira, baina azkenean, zein proportzioan sartu bata edo bestea gure erabakia, herriaren erabakia edo komunitate baten erabakia izango da. Hau da, bere hizkuntza edo kulturaren transmisioak zein oinarri izango duen zehaztu beharko du"

hamarkadetan gaztelera nagusitu den lekuetan, alegia? Horietan ez intereseko daturik eta handiz idatzitako Historia. Ez behintzat euskarak aintzat hartzeko. Baina hara non, hainbat pertsona (hiztun arruntak) elkarrizketatu ondoren memoriak, transmisioak duen nolakotasun bereziaz jabetzeko parada ezin hobea eskaini zidan.

Ohartu nintzen, edozein ezagupenen gainetik gizakiok bizipenak ditugula sustrai eta oinarri gure egunerokotasunean, gure errutinetan, gure ohiko bizitzan. Laster konturatu nintzen, esate baterako, hizkuntza jakinda edo ez, euskaraduna izan edo ez, mundu guztiak bazuela eta baduela gure herrian euskararen inguruko historia bat. Era guztietako historiak entzun izan ditut eta, halere, ziur nago errealitatean dauden istorioen lagin txiki-txiki bat baino ez zirela. Historia laburrak eta luzeak, sinpatikoak eta antipatikoak, barregarriak edo tristeak. Hamaika historia. Zerikusi handia ez zutenak datuekin, ezta enziklopedietan sartzen den Historiarekin. Narrazioak ziren. Txikiz idatzitako historiak. Baina bere xinpletasunean indarrez

betetakoak. Zergatik? Berezko esperientzietan eta bizipenetan oinarrituta zeudelako. Memoria gorpuztuaz ari gara hitz egiten. Sentipenez beteriko memoria, tatuaje moduan, azalean marraztutako irudiak balira bezala agertzen ziren istorio hauek. Eta hortan datza bere indarra. Bizitako memoria, bizitoki paregabea transmisiorako.

Bigarrena. Zein norabide du memoriak? Atzokoa-rekin, iaz edota beste garai batean bizitakoarekin identifikatzen dugu memoria. Baina memoria gaur egiten dugu, uneoro, memoria aitortzen dugun momentuero. Beraz, orainaldia ere bada memoria. Eta etorkizuna. Askotan fidatzen gara gure memoriari, pentsatzen dugulako etorkizunean ez digula hutsik egingo, eta norbaiten izenarekin, norbaitek esandakoarekin edo nonbait ikusitakoarekin gogoratuko garela. Baina memoria, definizioz, tranpatia da. Hori bai, tranpati zintzoa. Gehienetan, edo askotan, gogoan izango ditugu, bereziki, gure onerako diren oroimenak, aurrera egiten laguntzen digutenak. Nola ez, beste era batean izango balitz, bizitza zailagoa izango litzateke. Horregatik esan dezakegu muturreko egoeretan memoriak salbatu egiten gaituela. Euskarak, euskal kulturak badaki asko honetaz. Hainbat momentutan memoriatik tira egin behar izan dute, atzera begira bai, baina aurrera jarraitu behar izateko. Aurrera begiratzeak ez du esan nahi bizitakoa ahaztea.

Baina, memoriak zein norabide jarraitu behar duen erabaki behar da. Jose María Sánchez Carrión, *Txepetxek*, "Un futuro para nuestro pasado" izenburua jarri zion askotan euskalgintzako gailur teorikoa kontsideratu izan den lanari. Nik beti pentsatu izan dut, horretara iritsi baino lehen euskarak eta euskal kulturak oraindik zehaztu behar zutela zein iragan nahi duten etorkizunerako.

Zein memoria mota gorde eta zertarako. Emakume bati egindako elkarrizketan bere aitona-amonak euskaldunak zirela esan zidan, bere gurasoak ere bai, baino bera ez. Inoiz ez zioten egin euskaraz familian. Gerra garaia eta horren ondorengoa izan ziren errudunak. Tristoraz beterik hitz egin zidan inoiz izan ez zuen hizkuntzari buruz. Baina jarraian belaunaldi berriaz aritu zen. Bere seme-alabak, bere bilobak... horiek berreskuratu eta

etxeratu zuten euskara. Elkarrizketa luzea amaitzear zegonean egindako memoria ariketarekin nola sentitu zen galdetu nion. Dudarik gabe erantzun zidan: “mina eragiten duen memoriak... hobe alde batera uztera; bestela oroimen pozgarriak beterik dagoena... zergatik ez gozatu behin eta berriro?”.

Mina eta poza memoriaren parte dira, baina azkenean, zein proportzioan sartu bata edo bestea gure erabakia, herriaren erabakia edo komunitate baten erabakia izango da. Hau da, bere hizkuntza edo kulturaren transmisioak zein oinarri izango duen zehaztu beharko du.

Hirugarrena. Zein helmuga du memoriak? Hona hemen, nire ustez galdera garrantzitsuena. Noiz arte mantendu memoria? Edo lagunarteko hizkeran esanda: memoriak ba al du iraungitze-datarik? Tradizionalki transmisioa, kate baten antzera agertu da. Batzuetan sendoago, beste batzutan ahulago. Baina helburua beti berdina zen: katea mantentzea, inoiz ez apurtzea. Horrela ikusten nuen irudikatuta transmisioa euskararen garapena –edo historia soziala– aztertzen hasi nintzenean.

Transmisioa berdin katebegiak. Horixe zen eredu. Halere, niri izugarri deigarria egiten zitzaidan ikertzea –justu– haustura momentuak eta horiek eragindako hutsuneak, zuloak. Eta horietako batzuk aztertu egin nituen sakontasunez. Euskararen garapenean izandako hausturak; euskal kulturaren gertatutako ixiluneak. Krisiak. Eta prozesu horietan protagonistak izaten diren elementu ezkorak deusestatu gabe (inolaz ere) beti, une kritiko horietan bildutako energia, kemena eta, batez ere sormena deigarri egin zaizkit. Horiek erakutsi didate transmisioak transgresiorako daukan potentzialitatea eta horren ondorio positiboak. Izan ere, transmisioak uste duguna baino ahalmen handiagoa du aldaketak onartzeko, irensteko eta barneratzeko. Eta irentsi eta barneratu ondoren, aurrera begiratzeko.



Lasarte-Orian Eusko Langileen Alkartasunak zuen egoitza, 1932ko argazki batean.

ARGAZKIAK (GIPUZKOA-DONOSTIA)

Hori da nire ustez euskararen eta euskal kulturaren historiaren zati erakargarriena: transmisioak bitzako transgresioak: hizkuntzan, musikan, literaturan, antzerkigintzan, bertsolaritzan. Hona hemen, hain zuzen ere, azken eremu honen inguruan orain dela gutxi argitaratutako iritzi bat:

“Jendeak uste du transmisioa dela katemailak lotzea, katea ez etetea eta belaunaldi batek besteari pasa ematea, eta hori gezurra da. Azkenean bertsolaritzan behetik gora egiten duenak zer edo zer puskatuz egiten du gora”.

Hauek, Iñaki Muruaren hitzak dira. Bertsolaritzaren talaiatik hitz egiten zuen bertsozaleen elkarteko lehendakariak Gipuzkoako egunkari baterako. Oso gutxitan ikusi dut nik transmisioaren inguruko hain definizio egokia, hain hitz gutxitan.

Horien gainean nik zera esango nuke: azkenean gizarte batek behetik gora egiten badu zer edo zer hautsiz izango da. Horregatik transmisioak ezin du memoria ukatu, iragana alboratu; baina krisiak onartzeko prest agertu behar du. Gizarte eta gizakion genealogiaren parte baitira.

* EHUko gizarte antropologiako irakaslea

DANI BLANCO



Mario Zubiaga*

Suaviter in modo

“Merkatu omen orekatuan, euskara eta euskararen transmisioa ez da jada ‘misioa’ izango, aitzitik, sedukzioan, marketinean, borondate indibidualean eta kontsentsu orokorrean oinarritu behar omen da haren garapena. Utikan politika! Ahulegia baita euskara armatzat erabiltzeko, gertuko klasikoa gogora ekarriz. Ados: *Suaviter in modo...* Bai, baina *fortiter in re*”

Bizitza kolektiboaren helburuak, esparruak eta bitartekoak desadostasunaren eremu naturalak dira. Gatazkarenak. Politikarenak. Klasikoek erakutsi bezala, bizirik dagoen jendartea, sortzeko eta garatzeko gai dena, boterearen inguruan pizten den gatazkatik elikatzen da. Gaurko gaiari eutsiz, taldearen identitatearen interpretaziorako bitartekoen kontrola izango litzateke botere kulturala. Botere horren egikaritzan egongo dira jokoan gure mundu-ikuskerak eta ikuskera horiek belaunaldiz belaunaldi transmititzeko erabiltzen diren tresnak, hizkuntza barne.

Dena den, ikusmolde gordin eta zahar horrek ziki-negia dirudi orainaldiko mutur politikoki xuxenentzat. Hizkuntza “despolitizatzea” bilakatu baita azken urteotako leloa. Merkatu omen orekatuan, euskara eta euskararen transmisioa ez da jada “misioa” izango, aitzitik, sedukzioan, marketinean, borondate indibidualean eta kontsentsu orokorrean oinarritu behar omen da haren garapena. Utikan politika! Ahulegia baita euskara armatzat erabiltzeko, gertuko klasikoa gogora ekarriz.

Ados: *Suaviter in modo...* Bai, baina *fortiter in re*.

Izan ere, errealitatea setatia da oso, eta, Lehendakaria ez bezala, –tamalez esan beharko al genuke?– gure herrian identitate-gaiekin ez gaude aspertuta. Areago, biziki kezkatuta dago jendarte esparru zabala azken hilabeteotan hezkuntzan eta administrazioan euskararen transmisioak izan duen atzerakadarekin. Hori al da zorioneko despolitizatzearen ondorio desiratua?

Warrenen lanak jarraituz, gatazka eta boterearen arteko binomioan oinarritzen da politika. Bi aldagai horien faltak, edo bietako batenak, ekarriko luke “despolitizazioa”. Hala, euskaraz egiten den euskal kulturaren transmisioaren despolitizazioa hiru modu desberdinetan gerta daiteke:

Botere erabatekoa eta inongo gatazkarik ez. Warrenek “politika ukatuaren” eremua deitzen duena. Euskara (edo erdara) indarrez inposatuko balira hauxe izango litzateke eredia: beste mundu-ikuskerak publikoki debekatzen dituen eredu a-politikoa. Aniztasunaren etsaia den botere-politika gordina. Saiakera

gisa, kultur-homogenitatearen helburura iristeko filosofia bezala, diskurtso eta praxi politiko askotan islatu da pentsamolde hau. Estatuetatik bultzatu den nazio-eraikuntzak norabide horixe izan du ezbairik gabe. “Politikarik gabeko” iragan krudela gertu dugu gogoan. Izan ere, euskara publikotasunetik kanporatzeko neurri historikoak filosofia horretan oinarritu izan dira, hots, *Generalismok* bere ministroari esandakoan: “*Haga usted como yo: no se meta en política*”. Gurean, arestian aipatutakoaren oinordekoek euskaltzaleei “garbiketa etnikoa” egin nahi izana leporatu dieten arren, ez dut uste inork despolitizazioaren paradigma hau hobetsiko duenik, ez praxi politiko gisa, ezta helmuga desiratu bezala ere. Zorionez, abagune honetan gure herrian dauden kultur-ereduek euren arteko antagonismoa bideratzeko modu zibilizatuagoak topatu dituzte. Ez horregatik antzuagoak.

Botererik ez, eta gatazkaren saihestea. Hizkuntzen transmisioa despolitizatzekeo bigarren modu honen arabera, gure herrian kultur transmisioaren inguruko erabakiak ez lirake kolektiboki lotesleak izan behar. Bakoitzak bere tribu edo kultur-komunitate propioa izango luke, eta horrela tribu desberdinen arteko gatazka ekidin egingo litzateke, Zizekek aipatutako “arkeopolitikara” itzulita. Politikaren ukapena dakarren identitate-komunitate isolatuetan biziko ginateke, elkarri bizkarra emanda. Kasurik hoberenean, kultur-transmisioaren pribatizazio honek sortuko lukeen euskal *melting-pot-a lingua franca* unibertsalak bideratuko luke, ingelesak, alegia. Erakundeek tribu edo hizkuntz-komunitate desberdinen garapen autonomia besterik ez lukete ziurtatu behar, inoren kultur-transmisioa bermatu gabe. Desberdintze logika honek arlo pribatura eramango zukeen kultura eta hizkuntza, identitatea, sentimendu nazionala, etxeko erlijio bilakatu. Tribu horrek hizkuntz-komunitate auto-zentratu eta itxiaren norabidea har dezake –identitate paradigma–, edota presio-talde bihurtu, botere publikoetan *lobbying* lana burutuz, eragin-paradigman murgilduta. Zizekek “parapolitika” deitu duena.

Biak ala biak, ederki egokitzen dira indarrean dagoen sistema liberalak ezarritako desberdintze-eredura. Mundu garaikidean nagusitzen ari den nahaske-



Lakua, egungo Eusko Jaurlaritzako egoitza Gasteizen.

J. OLALDE

ta bitxia –merkatua eta feudalismoa uztartzen dituen–, ondo egokitzen da eredu despolitizatu honetara, eta ziklo politiko baten amaierarekin batera, euskal kulturaren transmisioa tribuaren gotortzean ikusten dutenak ugaldtu egin dira urteotan. Dena den, boterearen dinamikatik at omen dagoen eredu hau, isil bidez, oso gertuko dugun beste *lingua franca* baten –gaztelaniaren– hegemonia sendotzeko tresna bilaka daiteke, euskal tribua arlo publikotik kanporatzeko, batik bat. Nafarroan oso nabarmena da joera hau.

Ez botererik, ezta gatazkarik ere. Identitatea, mundu-ikuskerara, hizkuntz-hautua guztiz konpartitzen denean, adostasun orokor horrek “naturalizatu” egingo du kultur-hautu hori, borondatezko izaera bera ere ezkutatu. Andaluzian gaztelania da kulturaren transmisiorako tresna natural hori, horregatik gaztelania “despolitizatu” dago hango jendartean. Ez dirudi Euskal Herrian bizi dugun egoera diglosikoan euskararen transmisioa modu “natural” horretan ziurtatu daitekeenik. Gurean hizkuntza eta kultura desberdinak ditugu elkarbizitza lehiatsuan, eta ez da batere erraza, kultura partikularrez gaindi, erabateko kontsentsu a-politiko sustatuko duen diskurtsorik edo gairik topatzea: sukaldaritza edo, ez bada. Oxala, euskara ere maila horretan egongo balitz, Euskal Herri osoan “naturalizatuta”, ez Ataunen edo Errezilen soilik. Kontsentsu horrek transmisioari buruz dauden kezka ulergarri guztiak uxatuko litzuzke. EAEn berriki osatu diren aholkularitza-batzorde eta txostenak, kontsentsu horren bila aritu dira. Alabaina, nekez

“Izan ere, errealitatea setatia da oso, eta, Lehendakaria ez bezala, -tamalez esan beharko al genuke?- gure herrian identitate-gaiekin ez gaude aspertuta. Areago, biziki kezkatuta dago jendarte esparru zabala azken hilabeteotan hezkuntzan eta administrazioan euskararen transmisioak izan duen atzerakadarekin. Hori al da zorioneko despolitizatzearen ondorio desiratua?”

estali ahal izan dute azpian dagoen indar harremanaren emaitza dela kontsentsu oro. Batez ere, hizkuntzaren ingurukoa.

Izan ere, euskal kulturaren transmisioan boterea eta gatazka ezinbestez biltzen dira. Kultura eta hizkuntza gai politikoak dira, “politikoenak” esango genuke, eta politikoak izanik, hegemonia jokoetan murgilduta daude: unibertuala –euskal herritarra– aldi batez betetzeko, partikularrek –euskalduna, erdalduna, langilea, enpresaria, ezkertiarra...–, burutzen duten ahaleginan, alegia. Horixe baita hegemonia: Euskal herritar tipikoa zein den, euskal herritar tipikotzat zein jotzen den ebasteko eragileek diskurtso eta praxi politikoan bitartez burutzen duten ahalegina, hain zuzen. Eragile bakoitzak bere partikularren katea ordezkatzeko du, eta gure herrian lehiari dabilzan kate horietan euskarak duen lehentasuna desberdina da oso. Azken hamarkada hauetan euskararen transmisioak izan duen indarra, abertzaleen partikularren kateetan euskarak izan duen garrantziaren ondorioa da. Ahalegin hegemoniko horren emaitza izan da.

Orain arte eragile abertzaleek hegemonizatu duten eremu politikoan, EAEn, “euskal herritar tipikoa”, ez soziologikoa edo estatistikoa, “euskalduna”

izan da. Euskal herritarra izateko modurik osatuena. Hegemonizazio politiko horrek ahalbidetu du gutxiengo kultural batek –euskaldunak– lortutako transmisio linguistikoa. Hala, batzaz beste, euskaldunen kopurua %20tik %40ra igaro da bi hamarkadatan.

Euskarak –partikular gisa– abertzaleak ez diren eragileen kateetan duen garrantzia erlatibo ikusita, indar horien hegemonia politiko berriak, kolokan jarri al dezake euskararen transmisioa? Arestian esan bezala, arlo publikoan euskarak sumatu duen atzerakada azpimarratzekoa da. Areagotuko al da joera hau etorkizunean? Euskararen militantzia ziklo luze baten amaieran, globalizazioaren inguruabar konplexuan, koiunturazko aldaketa politiko horrek azken labankada emango al dio euskararen transmisioari? Agonismoa alboratu beharko litzateke, bederen.

Hasteko eta behin, salbuespen egoera batean gertatutako gobernu aldaketak ez du hegemonia politikoa egun batetik bestera aldatuko. Bestetik, joko hegemonikoaren arauak ez dira hain ximpleak. Leku hegemonikoa hartzeko artikulazio kate luzeak behar dira, eta euskararen begia kate horretan barneratu gabe, ezinezkoa da euskal nazio politikoa osatzea, nazio politikoa hori askea nahi den edota Espainiaren parte. Bigarren helburu honetarako ere, zentralitatea –leku hegemonikoa– hartu nahi duen PSE-EEK bere izaera “baskista” indartu beharko du.

Hautu argia bezain zaila du PSE-k: PSC-ren ildo jarraituz, Espainiari lotua nahi duen euskal nazio politikoa osatu eta horretarako euskara lehenetsi, edo, bestela, alderdi popularraren patuarekin bat eginez, euskararenganako beto jarrerari eutsi, Jaurlaritzari berriak hartutako azken erabakietan islatzen den moduan. Baskismoak bere oinarri espainolistarengandik urrundu dezake PSE, baina beto jarrera hori aldatu ezean, ibilbide oso laburreko zentralitatea izango du herri honetan.

Dena den, ezin ahaztu genezake abertzaleak ez diren “baskizazio” hori ziklo hegemoniko abertzalearen ondorioa dela, eta euskararen transmisioan hurrengo urrats kualitatiboak emateko, ziurrenik ezinbestekoa izango dela euskarari zentralitatea emango dion abertzaletasun eraberritu baten ekina. Ausarta maite du Zoriak.

Euskara eta kultur-transmisioaren mugak



Xabier Aierdi*

"Bi eremu bereizi behar dira ezinbestean euskararentzako etorkizunik nahi bada: eremu politikoko hegemoniaren bilakaera eta euskararen egoera eta berreskurapena. Koalizio oro ulerkor honek euskararen egoera objektiboaren diagnostiko egoki bat egin behar du, arakatu ia nola urtu litezkeen egungo euskararen gizarte mugak eta bertako espainolismoak euskararen egoeraren neurri erreala bere egiten lagundu behar du"

Beste muga batzuek aparte, aspalditik euskarak batez ere muga sozialak dituela uste dut. Mugok askotan alboratu egiten ditugu beste bi balizko erantzuleri errua egotziz: zuzenean instituzioei, euskararen berreskurapenean ez omen baitute borondate nahikorik izan eta traba ugari ipini dituztelako, eta, zeharka, gizarteari, ez delako behar beste inplikatu. Lehenek gauzak hobeto egiteko parada eduki dute; bigarrenaren portaera inpekablea izan da. Baina, konbentzitu nago irtenbide berrituak bakarrik etorriko direla erruak alboratuz eta muga sozial gaintiezinen hipotesitik abiatuta. Beste bi bideak urratuta daude eta emateko guztia emana dute.

Ezagutzaren ugarizetik automatikoki erabilera etorriko zela uste izan dugu, baina ez da horrela izan eta, oro har, gizarteak erantzun egin du. Euskararen mantenua gizarte mirari bat izan da, eta beronetan hainbat aktore instituzionalek eta batez ere sozialek hartu dute parte: gurasoak, irakasleak, euskaldun berriak,

irakaskuntza sistema, adituak, eta abar luze bat. Arrakasta erabatekoaren ausentzian emaitza porrota ez dela izan behin eta berriz azpimarratu egin behar da, zeren sinesgarritasuna eta egia bi estatus oso ezberdinak dira. Nahikotasunaren neurria ezin da izan gizarte elebakar euskalduna: askoz errealistagoa iruditzen zait *Euskara XXI* Txostenak aipatu duen *diglosia sosteniblea* (bide batez, iraunkortasuna sostenibilitatearen antitesia da).

Egoera berrituaren ezaugarri batzuk honako hauek dira:

- 1.- Espainiar nazionalismoak historian lehenengoz modu eraginkorrean mezu patriotikoa plazaratu du.
- 2.- Euskararen premia, sufrimendu eta nostalgian esparruetan legitimatu beharrean, mistika laiko berri batean oinarritu behar da, euskara ikasteak merezi duela argudiatzeko narratiba kolektibo

berri bat berrasmatu beharrean gaude eta. Narratiba honek bi aspekturi aurre egin behar die: nolakotasunari zuzenean eta, zeharka, zergatiari. Gaur egun zergatik ikasi behar da euskara? Hori da erantzun beharrekoa.

- 3.- Egoera honen aurrean, euskal nazionalismoak erronka handi bat dauka: bere izaera erreaktiboa ez baitzegoen prestatua Espainian erregimen demokratikoa izaten ari den 30 urteko luzera eta permanentziarako. Nazionalismo instituzionalak ez du botererik, erradikalak nahikoa du berea konpontzearekin eta nazionalismo linguistikoa desorientatua dago.
- 4.- Besteak beste, egoera berri baterako hona hemen hainbat osakin esanguratsu:
 - Aurreikuspenak, elebitasuna (edo elebakartasun euskalduna), ez ziren errealistak, eta gaur ere ez da 150.000 pertsonatik pasatzen euskaraz edozein produktu kontsumitu dezakeenik.
 - Euskara bide familiar afektiboetatik transmititu izatetik modu formal ez afektiboetatik egitera pasatu da. Soziologikoki esanda, euskara komunitatetik sozietatera pasatu da, logika komunitarioari indibiduala gainezartzen zaio, hedaduran irabazia intentsitate eta kalitatean galtzen du. Hots: afektutik kalkulura pasatu da. Beraz, euskarak sozialki ere errentagarri dela erakutsi behar du.
 - Egun, euskarak, alde batetik, egokiera arazo bat du eta, bestetik, lehentasunak zehaztearena.
 - Egokieraren helburua, ahal den eta modurik aproposenean, garagarri den gizarte-elebitasunera hurbiltzea litzateke, erritmoak eta lorpenak bermatuz, efektu kolateral negatiboak ekidinez eta larritasunak areagotu gabe. Ikerkuntza ugari behar dugu, eredu alternatiboak frogatu eta errudunen logika baztertu: zergatik 14 urteko gazte batek gaztelerara jotzen du ia gune guztietan? Ba, seguruenik, edo euskara nahikorik ez duelako edo daukanak nahi duena adierazteko balio ez diolako. Ez da kontu pertsonala, soziala baino.
 - Lehentasunen kontua eremu politikoa neurri batean baztertuta, kultur berreskurapena eta gizarte kohesioaren artean oreka ezegonkor

“Ez da posible elebakartasun euskalduna, zeren, besteak beste, hain garrantzi handia eman dio eremu politikoari, euskaldun izatea, abertzale izatea, gauzarik errazena da, botoa ematearekin nahikoa da, ez du eskakizunik eremu kulturaleran. Abertzaletasunak ia oro har euskara preszindiblea balitz modura jokatu du historikoki, eta horretan dirau”

bat bilatzean datza. Lehentasuna ezin liteke izan *kultur-sistema estatal* baten erreplika egitea, ez dugulako gaitasunik, ez dugulako masa-kritikorik eta indarrak oso ondo selekzionatu behar direlako: hizkuntz-erkidego txikia gara, hizkuntza ezberdinetako produktuetara hurbiltzen da egungo euskaldun jantzia eta euskarakoetara mugatu dadin oso interesgarriak izan behar dute. Euskaradun jantziak, esaterako, ez du ETB1n ezer ikustekorik eta literaturari eusteko ez dago 10.000 pertsona baino gehiago. Lehentasunak oso ondo aukeratu behar dira eta dagokionak erabaki beharko du, zeren gizarte bati ezin zaio etengabe errua egotzi jomuga lortezinak betetzen ez direlako.

- Ondorioz, gizarte kohesioa eta kulturaren berreskurapena oso lotuta daudela uste dut, finean egungo koexistentzia kulturala zentzuzko kultur-bizikidetzara bilakatze aldera. Ez da euskararen berreskurapenetik pasatzen ez den gizarte kohesiorik, eta alderantziz. Biek elkar eskatzen dute.
- Bloke identitarioek jarraituko dute, mantenduko dira, batek ere ezingo du bestea irentsi, beraz *grosse koalition* baten beharrean gaude: abertzaletasun guztia eta gutxienez

PSOE-PSE barnebildu behar dituen. Gainera, Nafarroa errekurtsio erretorikoa baino zer edo zer gehiago bada, PP ere erreferentzia modura ezin da galdu, bestela norbaitek ba ote daki nola geldiarazi nafar glotozidioa?

- Bi eremu bereizi behar dira ezinbestean euskararentzako etorkizunik nahi bada: eremu politikoko hegemoniaren bilakaera eta euskararen egoera eta berreskurapena. Koalizio oro ulerkor honek euskararen egoera objektiboaren diagnostiko egoki bat egin behar du, arakatu ia nola urtu litezkeen egungo euskararen gizarte mugak eta bertako espainolismoak euskararen egoeraren neurri erreala bere egiten lagundu behar du.
- Abertzaletasunak ere badu zer ikasiaz honetan guztian: ezin dena, ezin da eta ezinezkoa da! Ez da posible elebakartasun euskalduna, zeren, besteak beste, hain garrantzi handia eman dio eremu politikoari, euskaldun izatea, abertzale izatea, gauzarik errazena da, botoa ematearekin nahikoa da, ez du eskakizunik eremu kulturalean. Abertzaletasunak ia oro har euskara prezindiblea balitz modura jokatu du historikoki, eta horretan dirau.

Gizarte mugak kontutan hartu, politika eta euskara bereiztu, koalizio handi bat lortu eta bide berriak arakatu, horra hor hurrengo hamarkada batzuetarako programa. Orokorrean, imaginario politikoa agortu bada, gauza bera gertatu da euskararen berreskurapenaren alorrean. Iraganeko planteamenduak berrikusi beharra dago, garen apurraren kontzientzia hartu behar dugu eta ikerkuntza ugari garatu. Agian, genituen asmoak eta helburuak oso handiak ziren, hala behar zuen izan, baina bidegurutze historiko berri batera heldu gara: naziotasunetik, ez Estatutik, etorriko da euskararen bilakaera gertagarri bakarra.



ALBERTO ELOSEGI

"Gizarte mugak kontuan hartu, politika eta euskara bereiztu, koalizio handi bat lortu, eta bide berriak arakatu, horra hor hurrengo hamarkadetako programa".

Euskararen inguruan kezkatzeko motibo ugari dago, muga sozial ikaragarriak ditu, eremu batzuk ezinezkoak ditu, hedadura saileko beste batzuk ere nahiko dira, beraz ekologiaren analogia eginez euskararen iragana salbuespen egoeran garatu izan bada, etorkizuna ere salbuespen egoeran egingo da. Salbuespenari, nola kontrajarri komunitate berri bat? Eta, nolakoa? Horra hor erronka!

* EHUko soziologia irakaslea



Ane Larrinaga*

Euskalgintza, sorkuntza intelektualerako eta euskal kulturgileen rolen eraikuntzarako gune

"Hitz batean, euskararen eta euskal kulturaren birsorkuntza mugimenduaren eta mugimendu-kulturgileen baitan egon da, hein handi batean. Mugimendu izaera horrek esanahi politikoak bete ditu denbora luzez euskal kulturaren kultura egintzak eta, oro har, euskal kulturgileen lanak; azken horien zereginetako bat, hain zuzen ere, hizkuntzaren aldeko erresistentzia kognitiboa lantzea izan da"

Historia modernoan zehar euskararen eta euskal kulturaren alde osatu den euskalgintza izeneko mugimendua ikuspegi askotatik aztertu izan da. Guk uste dugu gune kognitibo gisa diharduen esparrutzat har daitekeela. Izan ere, gizarte mugimenduak ezagutza ekoizle garrantzitsuak dira. Eta ezagutza ekoizle izanik, baliabide sinboliko asko sortzen eta mobilizatzen dute beren helburua betetzeko, alegia, indarrean dagoen errealitatearen ordezkio interpretazio-marckoak eraikitzen. Baliabide horien artean gizarte garatuetako lehia sinbolikoetan ezinbestekoak diren era guztietako kulturgileak eta kultura bitartekoak egon ohi dira. Beraz, gune horietan, batetik, hainbat tradizio intelektualetan txertaturik dauden kulturgileek parte hartzen dute eta, bestetik, mugimenduen interes kognitiboei erantzuteko sortutako berarizko intelektualek ere. Azken horiei mugimendu intelektualak deritzete.

Euskararen eta euskal kulturaren aldeko mugimenduan ere izugarritzko sorkuntza intelektualak aurkitzen dugu. Ildo horretatik, ohartzen gara menderaturik dauden beste hizkuntza komunitate askotan gertatu den bezala, euskalgintzak ohiko kultura erakundeen tokia hartu duela luzaz; horrela, hiztun komunitateak beharrezkoak izan dituen funtzio kulturalak bete ditu eta kulturgileek beren rolak eraikitzeke premiazkoak dituzten agertokiak ere sortu ditu, besteak beste. Hau da, erakunde politiko eta erakunde kultural legitimorik ezak herri ekimenaren moldez jantzi ditu luzaroan kultura egintza gehienak euskal kulturagintzan.

Izan ere, esparru politikoaren eta kultura esparruaren garapena lotu-loturik egon ohi dira historian. Ildo horretatik, euskal kulturak Modernitatearen garaian nozitu duen azpiinstituzionalizazioaren arrazoia hiztun komunitatearen gorabehera politikoetan bilatu behar da. Zehazki esanda, euskara-

ren eta haren kulturaren azpigarapen kulturala euskaldunen mendekotasun politikoaren ondorio zuzena izan da. Halatan, instituzio politikoek ekimenik ezean, mugimenduaren ekimenez sortu izan dira sozializazio erakundeak euskal kulturari — eskolak, hedabideak eta beste kultura erakunde batzuk— eta haren inguruan hezi dira kultura eliteak ere. Bestelako erakunde ofizialen gabezi egoeran, euskalgintzak sortutako gune kultural alternatiboetan kontsokratu dira euskal kulturgileak hainbat belaunalditan. Hitz batean, euskararen eta euskal kulturaren birsorkuntza mugimenduaren eta mugimendu-kulturgileen baitan egon da, hein handi batean. Mugimendu izaera horrek esanahi politikoz bete ditu denbora luzez euskal kulturaren kultura egintzak eta, oro har, euskal kulturgileen lanak; azken horien zereginetako bat, hain zuzen ere, hizkuntzaren aldeko erresistentzia kognitiboa lantzea izan da.

Aitortu zaien aginte soziala dela medio, euskal kulturgileek hizkuntzari buruzko irudikapenak sortzeko eta irudikapen horiek hitzun komunitatean zabaltzeko ahalmena erabili dute etengabe. Hala ere, hizkuntzaren *corpua* eta estatusa aldatzeko hainbat interbentzio proiektu landu dituzte. Gutxitan izan dute erabateko arrakasta. Baina, modu horretan aritzean, kulturgileek hiztunen praktiketan eta kulturaren transmisioan eragiteko xedearekin jardun dute. Bestela adierazita, gizarte aldaketa izan dute helburu. Hartara, hizkuntza komunitate baten jokamolde linguistikoak ulertzeko, bereziki komunitate minorizatuen egoeran, berebiziko garrantzia dauka kultura eliteak —beste elite batzuekin batera— sortzen eta hedatzen dituzten irudikapenak eta ezagutzak aztertzeak. Izan ere, hizkuntza taldeen arteko gatazka guztiek adierazpenak izaten dituzte mintzaira praktiken arloan baina baita arlo sinbolikoan ere. Horrenbestez, hizkuntza eta kulturen arteko gatazka gatazka sinbolikoa ere izaten da, ezinbestean. Auzi sinboliko horietan hizkuntzei (eta kulturei) buruzko zenbait definizio sozial lehiatzen dira legitimazio bila. Borroka sinboliko horien testuinguruan, era askotako kokapenetan aurkitzen ditugu kulturgileak: batzuetan hizkuntza gutxituen aldeko mugimendu eta ekimenetan, eta beste batzuetan hizkuntza eta kultura hegemonikoen esparruetan lan eginez. Lerratze horien bitartez, hau



BIXEN

da, lan intelektuala kultura eta hizkuntza jakinen esparruan kokatuz, kulturgileek beren identitateak eta rola eraikitzen dituzte. Zalantzarik gabe, Aro Modernoan eta Beranduko Modernitatean, behinik behin, eztabaida intelektuala hizkuntza- eta kultura-gatazka gehienetan agertu ohi da.

Garaian garaiko baliabide kognitiboak baliatuta eta garaian garaiko baldintza soziopolitikoek baimendutako aukeretara egokituta elikatu dute hainbat euskal kulturgilek euskalgintza deitzen dugun gune kognitibo hori. Eskuarki egoera politiko eta kultural desagokian burutu dela kontuan hartuta, zeregin nekeza eta korapilatsua bete dute aipatu kulturgileek. Gaur ezagutzen dugun euskalgintza, besteak beste, kapital kultural eta sinboliko baten metaketa historikoaren emaitza da. Bestela adierazita, euskal kulturgileek denboran zehar —bereziki XIX. mende amaieratik aurrera— euskarari buruz eta euskal kulturari buruz sortutako lan, ideia, irudikapen, proiektu eta ezagutza multzoen ondorena da.

Euskalgintzaren esparrura ekarri dituzten berrikuntza politiko, intelektual eta kognitiboak aintzat hartuta, hiru une historiko nabarmendu daitezke kapital kulturalaren metaketa prozesu horretan: Eusko Pizkundearen garaia, lehena, 1960/70 hama-

"Gaur ezagutzen dugun euskalgintza, besteak beste, kapital kultural eta sinboliko baten metaketa historikoaren emaitza da. Bestela adierazita, euskal kulturagileek denboran zehar -bereziki XIX. mende amaieratik aurrera- euskarari buruz eta euskal kulturari buruz sortutako lan, ideia, irudikapen, proiektu eta ezagutza multzoen ondorena da"

rraldietako kultura pizkundera, bigarrena, eta 1980ko hamarraldiko instituzionalizazio autonomikoaren garaia hirugarrena. Horietako bakoitzak erakusten duenez, euskal kultura esparruan gertatutako aldaketak beti etorri dira euskal gizarteak bizi izan dituen bestelako egiturazko aldaketekin batera. Hartara, kultura esparruaren autonomia onartzen bada ere, argi geratzen da eraldaketa politikoen eta sozioekonomikoen astinduak eragin dituztela euskalgintzan nagusi izan diren interpretazio markoetan. Aldaketa uneetan intelektuaren sorkuntza lana areagotu egin da eta iraultza sinboliko garrantzitsuak gauzatu dira hizkuntzari eta kulturari dagozkien arloetan ere.

Azken urteetan, euskal kultura esparrua asko dibertsifikatu da. Gauza bera gertatu da kultura esparruko azpiesparruetan diharduten euskal kulturagileekin ere: literaturan, zientziagintzan, irakasuntzan, kazetaritzan, musikagintzan eta beste arlo askotan dihardute kulturagileek honez gero. Euskalgintza, zentzu hertsian hartuta, kulturako azpiesparrurik tirabiratsuenetakoa da gaur egun ere, batetik, bertan islatzen direlako inon baino modu zuzenagoan hizkuntzari lotutako gatazka sinbolikoaren

ondorioak, eta, bestetik, diskurtso eta estrategia desberdinak aurkitzen ditugulako lehian bai hizkuntzaren esanahiari dagokionez bai administrazioaren hizkuntza politikei buruzko estrategiei dago-kienez. Auzi horiek guztiek bertan diharduten kulturagileen praktikak eta diskurtsoak nahasten dituzte zuzenean, jakina.

Bestalde, mugimenduen bilakaeran ohikoak diren instituzionalizazio -eta profesionalizazio- prozesuen ondorioak euskal kultura esparruaren bilakaeran ere islatu dira, bereziki instituzionalizazio autonomikoaren osteko garaian. Izan ere, politika autonomikoaren eragin zuzen edo zeharkakoaren bidez, azken urteetan lehenago euskararenak ez ziren kultura erakundeak eta kultura enpresak garatu dira, bereziki eskolak, unibertsitateak, argitaletxeak, hedabideak, disketxeak eta elkarte zientifikoak; horiek guztiek bestelako kultura jardunguneak sortu dituzte euskal kulturagileentzat. Ondorioz, azken belaunaldietako kulturagileak dagoeneko kulturagile espezializatuak dira, alegia, irakasle, akademiko, zientzialari, fisikari, filosofo eta abar, eta ez idazle soilak orain berrogei urte bezala.

Lehenago adierazienez, hasiera batean, mugimendu ekimenez sortu zen euskarazko kulturagintza esparrua eta mugimendu ekimenez kontsaktatu ahal izan ziren kultura eragileak euskararen munduan, bulkada instituzionaleraino gehiago. Baina, hasierako kulturagile ereduak -mugimendu-intelektualak- sortzeko ez ezik, eredu intelektual horiek aldatzeko eta berriro definitzeko aukerak ere sortu dituzte euskal kulturagileek mugimenduaren barnean. Hala, baldintza soziopolitiko egokiak agertu direnean mugimenduaren instituzionalizazioak bidea eman du bestelako tradizio intelektualak garatzeko beste testuinguru instituzional batzuetan -adibidez, unibertsitatean-. Euskarazko tradizio akademikoak, esaterako, euskalgintzaren mugimenduaren haztegia dauka lehen jatorria. Uste dugu nabarmendu beharreko ekarpena dela horixe, kultura esparruan unibertsitatearen instituzioak oraindik gaur egun daukan garrantzia kontuan hartuta.

Kulturgintzaren Logikak



Andoni Eizagirre *

"Abertzaletasunean kapital kulturalak gabezia
ikaragarriak erakutsi ditu pasa den hamarkadetan,
baina, gainera, jeltzaleek ez dute nehoiz burgesia
nazional bat bezala jokatu, hala sinbolo abertzaleak
mobilizazio kognitiborako eta ekintza kolektiborako
sinbolo bilakatzeko erantzukizuna bazterreratuz"

Giza-abereak berezkoak ditu komunikatzeko
sena eta fenomenoek kausei buruz espekula-
tu beharra. Ereduzko programen antzera giza-
aberea kulturak gizarteratu izan du ideia, jarre-
ra, asertzio etiko eta bizitza-eredu integratu batekin.
Katrakila horrek bizi gaitu: kultura bat hizkuntzaren,
ekintza sozialaren eta bere efektuen bidez lorturiko
emaitza tangiblea da, baina era berean hizkuntza eta
ekintza soziala giza kontzientziaren eta beste elemen-
tu batzuen bidez alde aurretik transmititu eta barne-
raturiko arau, sinesmen eta jarreraren arabera dira.
Egitan kolektibitate orok behar ditu baliabide objek-
tibo eta subjektiboak egunerokoari aurre egiteko,
gauzei zentzua emateko eta ingurunean ziurtasunez
aritzeko. Azken unean, ekonomia, familia, eskola,
politika, erlijioa eta lagunartea joko arauak dira,
errealitatea definitzeko, bizitza soziala sakralizatu eta
legitimatzeko, edota ortzemuga kolektibo alternatibo-
ak mamitzeko. Baina arauak eraberritzen direnean,
metaforak, errituak, bizikidetzaren ere auzitan ipintzen
dira. Horren lekuko dira transmisioak, sozializazioak

eta bere eragileek oraintsu bizi dituzten legitimazio-
krisia eta ziurgabetasuna.

Herritarrok eta zehazki belaunaldi globalak espe-
rientzia sozializatzaile heterogeneoak eta sarritan
kontradiktorioak aldi berean eta bata bestearen
segidan bizi ditugularik, identitate ugariaren hartzai-
leak eta sortzaileak gara. Makaldu egin da zentzu
horretan kultura nazionalen estatutu instituzionala.
Hiru baieztapen lodi egiteko moduan gaude: balio-
ak ugari egin dira eta beraz herritarroi portaerak
arautuko dizkiguten printzipioak indibidualizatu
egin zaizkigu; kulturgintza bokazio eta ofizio beza-
la ahuldu delarik, sorkuntzaren ideia pertsonalista
bat gailendu da eta beraz rol profesionalak autenti-
kotasunari, efikaziari, merkatuari erantzuten dio;
eta, jendartea merkatu-logikarekin subjektuaren
errepresentazio indibidualen metaketa bilakatu da.
Beste hitzetan adierazteko, orain aske izateko obli-
gazioa eta besteekin ez ezik norbere identitateare-
kin "negoziatzeko" beharra gailendu zaizkigu.
Egiaztapen hori ezin genezake bistatik gal.



Ospe txarrekoa da bizi gaituen aroa, izan ere, ordena instituzionalen metamorfosi globala bizi dugu, eta ondorioz elikatu egiten dira liberazioa eta segurtasun falta; modu kritikoagoan esanda: kontsumitzaileak irekia eta kulturgileak autentikoa izan behar duelarik, jendarte intimo garaikideetan sortzaileek baliabideak eskaini behar dituzte herritarrek beren potentzialtasunekin modu “autonomoan” identitateak eraikitzeko. Inori halako baieztapenak arrotzak baltzaizkio, irakur ditzala merkatu dinamikak, ikusentzuzko produktuak edota kultura alorreko politika publikoak.

Egiazki, kulturgintzaren logika berriak ez gaitu batere ondo kokatuta harrapatu eta gure kasuan gainera proposamen tolesgabeak modurik inozoenean barneratu izan ditugu. Akatsetako bat da 60ko hamarkadan euskal kulturgintzan ereindako izpiritu kritikoaren gogoeta oparoak baliogabetzea; diskurtso anti-dialektiko batekin emantzipazioa zokoratu izan da. Perspektiba historikoak berresten digu euskal kulturaren larritasuna eta irudikari kolektiboan ahultasuna hainbatetan gestio politikoari estuki lotua dagoela. Abertzaleen erronka herritartasunaren autonomia kulturala eta komunitatearen politika beregaina sendotzea ere bazen, eta horretan, bisioaren, pasioaren eta adorea faltan, autogobernua eta

bere tresna sinboliko zein materialak ez dira egokiro inbertitu. Abertzaletasunean kapital kulturalak pasa den hamarkadetan gabezia ikaragarriak erakutsi ditu, baina, gainera, jeltzaileek ez dute nehoiz burgesia nazional bat bezala jokatu, hala sinbolo abertzaleak mobilizazio kognitiborako eta ekintza kolektiborako sinbolo bilakatzeko erantzukizuna bazterreratuz. Abertzaletasuna mende hartua dago, indarrak gabe talde identitatea sortzeko eta definizio alternatiboak eragiteko, baina koakzio fisikoari, politika hutseko aurkakotasunari eta botere itsuaren erasoei ez ezik, esplikazioa borroka ideologikoan eta abstrakzio errealean ditugun gabeziei ere zor zaio, aporia liberalen eraginpean. “Ez da gure esku zegoen guztia egin” aitortzen da orain, halarik ere, itxuraz behintzat liberalismo atzerakoiena geratzeko asmoz etorri da; irakur bitez hizkuntza-politika indibidualista, bizitza kulturalaren merkantilizazioa edota neurgailu teknokratikoen orokortasuna, guztia erabateko fintasunarekin, bezeroa desirak kilikatuz erakartzeko (sic). Ez da aski barne-txostenetan globalizazioaren mamua identitate lokalak higatzen ari dela antzematea; abertzaletasuna urteotan Jaurlaritzan izan den bitartean “euskal unibertsala” irakurketa partzial batekin egonkortzea lortu da. Hori da ironia: estatutuaren haurrak abertzaleen produktu bat dira.

Posmodernian itsuki jauzi izanaren inplikazioak ugariak dira. Era berean, ordea, ez ditugu egokiro interpretatuko kultura-politika eta bizitza kulturala jarrera hiperkritiko batekin ere. Begirada modernoa ez da aski, ilusio kulturala eta zoru materiala kontradikzio dialektiko gisa ulertzea ez da aski, helburua euskaltasunaren arrazoibideak gaurkotzea bada. Hori da bigarren akats larria. Badira sustraituta ditugun zenbait dogma. Diskurtso gailenduari men eginaz inolako filterrik gabe jardun dutenekin batera, sarriegitan erresistentzia-zikloak irudikari politiko gogor batekin aldaketa-garaia eta bere esanahi kulturalari arreta galdu dio. Luzaroan ekuazio kritiko erakargarri bat itsuki sinetsi dugu: fenomeno sozialen ulermen kausala burutzea, historia martxan jar dadin kontzientzia piztea eta kideek esperientzia sozialak konpartitzea hirutasun saindu gisa erabili ditugu euskal bizitza ulertu, aldaketa justifikatu eta mobilizazioa eragiteko. Hiru mekanismo horiek erabat akituta daude eta muga sozial nabarmenekin topatu dira, protestak bizitza politikoaren erregaia izateari utzi dio eta aidanez gure artean zenbaitzuek onartu dute sarriegitan opresio kolektiboaren irudikariak herritarren askatasun erreala, arazoan indibidualtasuna eta aktore sozialen gaitasun sortzailea ukatu egin dituztela. Edozein kasutan haren efikazia politikoa auzitan geratu denean hasi gara alternatiben beharraz jabetzen, baina ortodoxia disimulatu ezinik, maila indibidualako "kontzientzia faltsua" maila politikoan "hiperkritikoak eta orbaingabeak" izanaz zuritzen dugu, ohartzeke politika dela esperientzia kulturala liberatzeko eragozpen posible bat. Guztia ez da politikoa, ez eta ere ekonomikoa, alderdi kulturalak badu autonomia bat, eta sarriegitan kulturgintzari politika galbahetu zaio. Ez da egia kultura botere eta desberdintasunetatik libre pentsa genezakeenik, baina irakurketa estatiko batek ere gutxietsi egiten du sarritan baliabide urriko taldeek erronkak gainditzeko ekimena izan dezaketela. Euskal kulturgintzak ezin du izan amaieragabeko porroten gotorleku, argigarriago, ezin du izan faktore kolateral bat.

Modu zuhurragoan eta bihotz apur batekin saiatu behar dugu errealtatea ulertzen, bereziki, aldaketa garaiari dagokionean. Eraldaketa ekonomikoek, fordismoaren krisi sinbolikoak eta kontsumitzaile nazionalaren erosioak, bizitza-estiloen ernaltze sendoak, indibidualizazioak eta fragmentazioak, merkatu-efizientziak eta arrazionaltasun liberalak, kontsumitzailearen nagu-

"Ez da egia kultura botere eta desberdintasunetatik libre pentsa genezakeenik, baina irakurketa estatiko batek ere gutxietsi egiten du sarritan baliabide urriko taldeek erronkak gainditzeko ekimena izan dezaketela. Euskal kulturgintzak ezin du izan amaieragabeko porroten gotorleku, argigarriago, ezin du izan faktore kolateral bat"

sitasunak eta pertsonalizazioak, egiazki, aldaketa kultural erabatekoa suposatu dute; aurreste modernoak maila kognitibo, ekonomiko zein sinbolikoan ezeztatu dira. Gauza bat da neurri erregulatzaile kolektiboan ahultzarekin politikariak ikuskizunaren lehian, eskaintza kulturala hiper-errealitatean eta kontsumitzaileak zorientasun paradoxikoan erori izana, eta beste bat indibidualismo demokratikoaren antibalantziak euskal kulturgintzaren etsai kontsideratzea.

Bistan da bi aldaketa kultural gertatzen ari direla: instituzioen metamorfosia eta belaunaldien metabolismo bizi-prozesuen esperientziazioan. Modernitatean eskutik hartuta bazetozen proiektu linealak eta pertsonalitate sendoak, orain gaztetxoekin nekez lortuko dugu ganorazko elkargunerik halako bilbadura zurrunean. Hori ondo ulertu duten ekimen kulturalak dira mundua euskal koloreekin ere aberastu dutenak. Izan ere, aldatu behar dute administrazioaren, gizarte zibil autoeratuaren eta merkatuaren arteko harremanek, konplizitateak falta dira, baina horrekin batera gure bisioa finkatzea, euskal kulturgintza espazio publikora modu beregainean jasotzeko adorea eta ahalegin hori klabe berriekin gorpuztea dira momentu hauetan eginkizun behinena, besterik ezean, hori badagoelako euskaldun garenon esku, behin eta berriz erakusten ari garenez.

* MUko HUIHEZI fakultateko soziologia irakaslea

DONA LUCY



Imanol Galfarsoro*

Kultu(ra)ren kartografia(k)

"Euskal Herrian irabazteko daukagun estatuak efektu zuzena izango baitu: gaur egungo 'euskalduna' kategorian nagusitzen den simulakro etnikoaren amaiera. Estatuaren eragin zuzenaren menpe egongo diren eskola eta unibertsitateetan behintzat, kulturaren transmisiorako ereduak Matthew Arnold-ek kontseilatzen zituen gisan eskaini daitezela *please*, alegia: 'Munduan erakutsia eta esana izan den onenaz' "

Kultura' kontzeptu nabariki balioanizduna eta korapilatsua da. *Cliché* honen harira esan daiteke, hala ere, kulturaren esanahia artikulazio bikoitz baten inguruan antolatu dela mendebaleko i(ra)kasbideetan.

Gizartea, komunitatea edo herriaren bizimodu eta zereginekin lotuta dauden ikusmenek, kulturaren ulermen *zabala* ematen dute aditzera, ohikoan giza-zientzien (antropologia, soziologia...) tresneria aztertzaileekin ezagutzera eman dena. Kultura, hemen, giza-taldeen ohitura, hizkuntza, errepresentazio, jarra, ekite eta ideiez dago osatua; giza-talde antolatu batek heredatu, erabili, erantsi, transmititu eta transitoan ere transmutatzen dituen osagai eta baliabide material zein sinbolikoz osatua, hain zuzen.

Eguneroko bizi-esperientzia "arrunta" zehaztu eta adierazteaz gain, kulturak, kontzeptu bezala, beste esanahi *mugatu* eta hertsia goa ere gorde du. Kulturaren definizio murriztu honek sorkuntza estetikoaren eremua betetzen du. Artegintza zein litera-

turgintzarekin lotuta oro har, kulturaren zentzu honek sormena, "jenio" artistikoaren edo gutxiengo jakitun baten esparru pribilegiatua azpimarratu izan du, bidenabar kulturaren ideia elite kul(tiba)tu baten beharrean sostengatuz.

Kulturaren esanahia ulertzeko modernitatearen bilakaerari eta giza-aldakuntzei erreparatu beharra dago. Kultura birdefnizteko ahaleginak modernitateari emandako erantzunekin hedatu ziren. Testu-guru horretan, gizarte industrializatu eta urbanizatu berriekin batera nagusituz joango zen masa-kultura herrikoikiak mehatxu nabaria suposatu zuen. Mehatxua kulturaren ulermen mugatuak defendatzen zuenaren aurka: mekanizazio errepikakorraren eraginez, kulturgintzaren goi mailako estatusa eta artelanaren *aura* bereizgarria zalantzan ezarri ziren. Mehatxua kulturaren ulermen zabalak ohiz aztertzen eta babesten zituen ohiko bizimodu *natural* eta *pre-moderno*en aurka, bai herri kolonizatueta baita European bertan ere.

XIX. mende bukaeran eta XX.aren hasieran emandako giza-garapenei erantzun nahiarekin, badago beste *cliché* bat kultura eta Euskal Herria batzeko orduan zeharo hedatu dena. Lotura hori halaberrez identifikatu izan dela definizio zabal-antropologikoarekin; eta, noski, identifikazio hori berori berezitasunaren edo *eszeptionalismo*-aren fantasia idealizatuekin hornitu ohi da: *Europako herri zaharrena, hizkuntza misterioitsua, izaera "etniko" mardul-indartsua...* Gogorarazi beharra baldin badago, tradizio honek sendo dirau XXI. mendean.

Globalizazioa gora eta teknologia berriak behera, interesgarria da fantasia kulturalista eta subordinatzaile hauen babesleku nagusiez ohartzea. Nahikoa kurioski, euskalduntasun bereziaren inguruko mi(s)ifikazio konpensatzaileak, "tolerantzia", "pluralitatea" edo "dibertsitatea" nonnahi eta, batez ere, nolana azpimarratzen dituztenen jarduera eta predikamendu kultur-anizale berrietan aurkitzen baita, gaur egun; oso jarduera *post* izanik (post-moderno, post-politiko...) predikamendu (est)etiko oro ahultzailetan oinarritzen dena.

Adibide gisa, har dezagun Julio Medemek *Euskal pilota: larrua harriaren kontra*. Jakina, aurkeztu zenetik ur sobera joan da zubi azpitik. Hala ere, *lurra emandakoa lurra gelditzen da*, betiere eskertzekoa dena bat-bateko polemiken modakeriatan ez erortzeko.

Gauzak horrela, Medemen dokumentalean oraindik ere aipagarri gelditu, zera gelditzen zait, alegia: dokumentala bera, nabarmenki, pilota joko eta nekazari-arrantzale kirolen protagonismo erdi-erdikoen inguruan antolatu izana: segalariak, aizkolarriak, estropadak, idi-probak, ahari jokoak ... Zer esanik ez, sormen-askatasunaren balioari eutsiz, arazoa, berez, ez da erabilitako ikusmenezko teknika formal ardatzaile hori. Hala eta guztiz ere: identifikatzen zituen *dos frentes nacionales* baketu ezinen arteko errotiko ezinulertuaren muina, gatazkaren zorrozatasuna, indartasun zentzua eta konfrontazioaren bortizkeria "kulturalki" erakuste aldera, ez al dago ganorazko euskal kirol eta jokorik? Hala nola, esate baterako, xake jokoak (taktika eta estrategia), futbola (gatazkaren izaera kolektibo eta antolatua), surfa (eragozpenen gainditze indibiduala) eta abar (alpinismoa, golf, boxeoa, tenis jokoak ...).

"Kultura alde batera, eta politika zein gizartea beste aldera zatikatzeko joera ezaguna, bidegabekeria da. Zer esanik ez, zatiketa horren bidez kulturak bere indarra, enkantua eta jakinarazteko doitasuna gordetzen du. Izan, kultura xarmagarria da oso! Baina gizarte garakideetan, kultura zenbait hegemoniaren aldeko borroka politikoetan txertatuta dago, nahitaez"

Ematen duena baino sakonagokoa da arazoa. Izan ere, aurkezpen-aukera esplizitu horren *azpian* gordetzen da, presuposizio inplizitoetan alegia. Edo bestela esanda, mezu orokorra gehienbat modu aitortu gabekoen bitartez ulertzeko moduan:

Inpartziala eta orekatua naiz. Kulturaren ederra eta benetakotasuna maite ditut. Kulturak politikaren zatarrarekiko distantzia kritikoa mantentzeko bidea irekitzen dit. Gainera, ez daukat frogatu beharrik. Ni munduko hiritarren arteko zinegile kosmopolitena naiz. Izan naiz jada, beste lan batzuen bidez, hainbat bizimodu konplexuren drama unibertsalak erakusteko gauza, izan ere, kultura herrikoi globalaren eta kultur-industriaren euskarri nagusienetarikoa (zinema) maisuki erabiliz. Orain, aldiz, Euskal Herriko biztanleen berdintasun politikoa jabetzeko posibilitatea *estigma* bilakatze aldera, euskal berezitasunaren *enigma* eta diferentzia kulturala azpimarratuko ditut bere osotasun eta benetakotasun lokalean. Nola? Bada, hain justu, Euskal Herria kultura herritarraren zati are partikularrago baten bitartez (herri kirolak) soilki sinbolizatuz.

Noski, subordinazio politikoa iraunarazteaz gain, eta Euskal Herriko kultur-izaera aberats eta konplexuari uko eginez, baliabide metonimiko horien beste efektu estrategikoak ezagunak dira: autentizitate multikulturalistaren kontsumoa suspertzeko baliagarriak dira; edo beste modu batera esateko: bertako *nouvelle cuisine basque* eta label produktuez hornitutako mahai-inguruan, naturarekin bat datorren euskaldunaren indarra, gizontasuna eta emandako hitzaren balioa sinbolizatzeko ahalmena gordetzen dute... negozio *glokalak* egiteko orduan. Zentzu horretan, inportantzia gutxikoa da, niri behintzat Frantzia kulturaren bitartez saltzeko marketin estrategia *rurbanoak* egokiago iruditzen bazaizkit: *traditional French cuisine* eta erromantzea *–du pain, du vin–*, gazta eta laztana Pariseko tren geltokian... *Beautiful!* Kontua da, hala ematen du bederen, *de traje regional* janzteak funtzio ekonomiko nabaria betetzen duela hala Euskal Herrian nola Renon edo Shangain.

Garbi dago: gaur egun, aipatu kulturaren bi zentzu nagusiak nahastuta agertzen dira, eta kulturaren esparruan ohikoan zedarritu nahi izan diren makina bat muga uztartu egiten da. Kultura “bizimodu oso”-tzat ulertzen duen zentzu zabalak jendartean eta herrian errotzen diren pentsamolde, portaera eta araubideak, jarrerak, hizkuntzak eta ohiturak segitzen dira kontuan hartzen. Baina kultura prozesua den hein berean, gizartean antolatzen diren kultur-instituzioekin batera, kultura egituratu eta bere baitan biltzen dituzten aginte egiturek ere leku nabarmena betetzen dute (hezakuntza eredu, esate baterako, edo hizkuntz akademiak eta abar). Kultura “sorkuntza estetiko”-tzat ulertzen duen zentzu mugatua, bestalde, zenbait musika tankera, literatur testu eta arte-forma, tradizioaren bidez gordetako bikaintasun-eredu mugikorrez elikatzen da. Baina ohiko kultur-ekoizpen onartuen gain, zenbait masatan produzituriko merkatalgailu eta kultur-artefaktuen balio estetikoak ez da zalantzan ezartzekoa.

Kulturak, horrela, sare zeharo konplexu baten itxura hartzen du, non modu oso asimetrico bazain bitxien bidez gauzatzen diren “goi”, “erdi” eta “behe” mailako artegintza (eremu estetikoak), jatorrizko adierazpen herritar lokalak (eremu antropologikoa) eta kultura masifikatu eta herrikoi (edo *mass media* eta kontsumoaren eremu) globalaren arteko eragin eta

influentziak. Testuinguru horretan, kultura alde batera, eta politika zein gizartea beste aldera zatikatzeko joera ezaguna, bidegabekeria da. Zer esanik ez, zatiketa horren bidez kulturak bere indarra, enkantua eta jakinarazteko doitasuna gordetzen du. Izan, kultura xarmagarria da oso! Baina gizarte garakideetan, kultura zenbait hegemoniaren aldeko borroka politikoetan txertatuta dago, nahitaez.

Beraz azken oharra: ez nabil “euskaldun” bezala idazten. Ez gaur egun orokorrean ulertzen den bezala, behinik behin. Askapen mugimenduak azken 50 urteetan eraiki, eratu eta artikulatu izan duen subjektu kolektibo zehatz baten praktika eta diskurtso etiko-politikoaren egiari, fidelitate osoa erakusten dion posizio batetik ari naiz idazten; posizio zeharo kontzientea eta, are gehiago, kontingentea dena. Ez da gauza bera. Azken finean, Euskal Herrian irabazteko daukagun estatuak efektu zuzena izango baitu: gaur egungo “euskalduna” kategorian nagusitzen den simulakro etnikoaren amaiera. Eta kulturaz ari garenez, soilik kulturaz, niri, Nomadak TX edo Kepa Junkeraren fusio trikititxinparta “hibridoak” atsegin zaizkit. Baina kulturaren eremuak eremu eta kulturaren transito zein transmutazio kontrolagaitzez aparte, nago, paradoxikoki, aspaldiko kultur kritikari kontserbadore baten irakatsiak gaur egun ere baliagarriak direla. Ondorioz, estatuaren eragin zuzenaren menpe egongo diren eskola eta unibertsitateetan behintzat, kulturaren transmisiorako ereduak Matthew Arnold-ek kontseilatzen zituen gisan eskaini daitezela *please*, alegia: “Munduan erakutsia eta esana izan den onenaz”.

* Ingalaterrako Leeds Unibertsitateko
Soziologia saileko kidea

LARRUN pentsamendu aldizkaria ARGIArekin batera banatzen da

Zuzendaria: Xabier Letona

Jabea: Komunikazio Biziagoa S.A.L.

Helbidea: Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160 Lasarte-Oria

Posta Elektronikoa:

larrun@argia.com **Telefonoa:** 943 37 15 45

Inprimategia: Antza S.A.L. **Informatika:** ASP

SCOOP.